



Protokoloa, festaguneetan eta gaueko aisialdi pribatuko guneetan eraso sexistei aurrea hartzeko eta haietan arta emateko 2023


SIN
AGRESIONES SEXISTAS
ERASO SEXISTARIK
GAIBE

IZENBURUA

Protokoloa, festaguneetan eta gaueko aisialdi
pribatuko guneetan eraso sexistei aurrea hartzeko
eta haietan arta emateko

PROTOKOLOA LANTZEKO ESPARRUA

Iruñeko Udalaren Berdintasuneko Ordenantza

AHOLKULARITZA, DINAMIZAZIOA, IDAZKETA

Linking Ideas

www.pamplona.es

igualdad@pamplona.es

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Indarkeria sexistak eta aisialdia	7
3. Protokoloa, festaguneetan eta gaueko aisialdi pribatuko guneetan eraso sexistei aurrea hartzeko eta arta emateko	9
Protokoloaren premisak eta oinarriak	9
Helburuak	10
Jarduketa-eszenatokiak	10
Indarkerien aurrean arta emateko jarraibideak	12
4. Protokoloari atxikimendua	19
Ezarpen eremua	19
Egin beharreko jarduketak protokoloaren testuinguruan	19
Antolaketa-egitura	21
Atximendu-agiria	24
5. Eranskina	25
Protokoloaren materialak lokalean	26
Lokaleko langileendako harrera-eskuliburua	30
Eraso sexualaren kasuetarako informazioa (2. Eszenatokia)	32

1. Sarrera

Hezkuntza, Berdintasun eta Kultur Aniztasuneko Alorrak, (lehen Berdintasuneko eta LGTBIko Alorra zenak), Iruñeko Udaleko Berdintasuneko eta LGTBIko Alorrak, III. Berdintasun Planean, «Emakumeen aurkako biolentziarik gabeko bizitza bermatuz hiri seguru batean» esku-hartze arloan, helburu nagusia du: «Iruña hiri seguru bihurtzea, indarkeriarik gabea eta adeitsua emakumeekin, haien memoriarekin eta hiriaren garapenari egin dioten ekarpenarekin».

Helburu orokor hori martxan jartzeak Iruñeko Udala eraman du, 2014tik eta hiriko ehun sozial eta feministarekin koordinatuta, zenbait arlotan eraso sexisten aurrean aritzeko hiru jarduketa-protokolo garatzera:

1. Arta eta laguntza protokoloa eraso sexisten kasuetan
2. Jarduketa-protokoloa eraso sexisten aurrean
3. Herritarrek erantzuteko protokoloa (honetan Udaleko Herritarren Segurtasuneko, Gizarte Ekintzako eta Komunikazioko alorrek hartzen dute parte).

2017an eraso sexisten aurreko sentsibilizazio eta aurrea hartzeko kanpaina esku-hartze zabalago baten testuinguruan sartu zen, «Eraso sexistarik Gabe, Iruña aske» izeneko estrategian alegia. Hiriak duen jarrera irmo horrekin bat, hala erakundeek nola gizarte mugimenduak lehentasunezkoztat jotzen dituzte egoera horien aurreko arreta eta salaketa.

Protokolo horiekin estrategia horren garapenean eskuratutakoak oso handiak dira. Erasos sexisten aurrean kontzientziazio-prozesu bat izan da gizartean, gai horren inguruko sentsibilizazio maila handitu da, erasoak zer diren gero eta zehazkiago zedarritu da eta gertaera horiei dagokien neurria eman zaie, izan ere, orain arte toleratu edota justifikatu izan dira jai giroaren eta kontsumoen edo bozkario kolektiboaren aitzakiapen.

Festaguneetan eta aisialdi lokaletan eraso sexistei aurrea hartzeko eta haietan jarduteko protokolo honen diseinua lerro estrategiko horren baitan dago, eta urrats bat gehiago dakar berekin herritarrek eta instituzioek emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borrokan.

Protokolo hau 2018an sortu zen, Alkatetza-Berdintasuneko Alorraren ekimenez eta Herritarren Segurtasuneko, Gizarte Ekintzako eta Ogasun, Merkataritza eta Turismoko alorrek elkarlanean. Urte horretan partekatutako lan-prozesu bat egin zen protokoloaren irismena eta hedapena zehazteko, eta bertan, aipatu udal-alorrez gain, honako hauek ere hartu zuten parte: Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzua (EUAZ), Iruñeko ehun sozial eta feminista, Gora Iruña, Iruñeko Peñen Federazioa, Nafarroako ostalaritza elkarteak (ANAPEH, ASBANA, AEHN), aisialdi aretoak/tabernak (Zentral, El Terminal, Herriko Taberna, La Antigua Farmacia, Ozone) eta Iruña Rock musika jaialdia. Aurrerago, 2019an, proba pilotu

bat egin zen protokoloaren aplikazioa baliozkotzeko. 2020an pandemia iritsi zen, eta eragin erabakigarria izan zuen aisialdiaren sektorean. Horren ondorioz, protokolo horren hedapena birdimentsionatu behar izan zen. Denbora horretan, gainera, hainbat aldaketa gertatu dira araugintza-esparruan eta gizarte-ohituretan, eta, ondorioz, Protokoloa eguneratu behar izan dugu, prozesuan adostu ziren edukietan oinarrituta, eta honako ikerketa hauetan jasotako informazioa ere txertatu dugu: “Puntos críticos en Sanfermines. Diagnóstico sobre seguridad desde la experiencia de las mujeres” (Emagin 2016) eta “Estudio noctámbulas sobre violencia sexual y sexista en Sanfermines, su relación con el consumo de drogas, su origen y prevención (Noctámbul@s behatokia, 2016). Kontuan hartu da, baita ere, eraso sexistei aurre egiteko argibidegunean jasotako informazioa sanferminetan (2015, 2016, 2022 eta 2018 urteetan), sanfermin txikietan (2018) eta auzoetan. Halaber, edukiak partekatzen ditu “Eraso sexistarik gabe, Iruña aske” gidarekin.

2. Indarkeria sexistak eta aisialdia

Indarkeria sexistek eta horiek pairatzeko mehatxuak mugatu egiten dute emakumeak espazio publikoetara berdintasunez sartzeko aukera. Indarkeriek edo horien mehatxuak ondorio-kate kaltegarria eragiten dute: zuzenean sufritzen dutenei eragiten die lehenik eta behin, baina horien inguruko kontzientziak emakume guztien askatasuna mugatzen du.

Gaueko aisialdi aretoak, dantzalekuak, ikuskizun-kafeak, kontzertu-aretoak, taberna bereziak, tabernak, jaialdiak, eta abar topaketa eta harremanetarako espazioak dira, eta, gizarteko gainerako testuinguruak bezala, askotan jokabide sexisten eszenatoki bilakatzen dira, emakumeei horiek askatasunez bizitzeko aukera galaraziz.

Beharrezkotzat jotzen dugu ikusaraztea indarkeria sexistak harreman-espazio guztietan gertatzen direla eta eraso sexistak festa eta aisialdi guneetatik kanpo gertatzen direla nagusiki. Gauzak horrela, datuek adierazten dute kasu gehienetan eraso sexistak inpunitate handiagoko lekuetan gertatzen direla, besteak beste etxeetan, garraioetan, ikusmenerako itsuak diren lekuetan edo mugimendu gutxiko lekuetan.

Gaueko aisialdiko eta festetako inguruetan, emakumeen aurkako indarkeriak botere-ariketa bat dira, eta eraso sexistetatik (hitzezko jazarpena, irainak, etab.) sexu-eraso larrienetara doaz. Adierazpen horiek guztiek halako indarkeria-*continuum* bat sortzen dute, eta denak jaso behar dira askatasunaren kontrako eraso gisa. Tematzea edo hitzez jazarpena, besteak beste, jokamolde, sinesmen eta estereotipo matxistekin lotzen dira, eta ohikoenak dira aisialdiko testuinguruetan; horregatik orain arte normalizatu eta ikusezin egin dira neurri handi batean.

Hori guztia dela-eta, sexu- eraso baten aurreko esku-hartzeari heltzeaz gain, gaueko eragile guztien ardura da (ikusbizun publikoen eta aisialdi-jardueren antolatzaileak eta, horietaz gain, aisialdi-lokalen arduradunak) icebergaren oinarrian dauden indarkeria horiek ere agerian uztea, horiek sostengatzen baitituzte emakumeen kontrako eraso larri eta ikusgarrienak.

Aisialdiak ez du ordena sozial bat sortzen, aisialdiak hori erreproduzitu eta handitu egiten du, eta gizon eta emakumeentzat desberdina den gizarte baten praktika, sinesmen, estereotipo eta jokamoldeen eszenaratze bat da; gainera, batzuetan, sexu-erasoraino irits daitezkeen jokamoldeen eszenatoki ere izan daiteke.

Aisialdiko lokaletako arduradunen eta langileen parte-hartzea funtsezkoa da emakumeek bizi duten askatasun-gabezien gaineko kontzientzia argia sortzen laguntzeko eta tratu onen, errespetuaren eta erasoen kontrako gaitzespen sozialaren kultura sortzea errazteko.

3. Protokoloa, festaguneetan eta gaueko aisialdi pribatuko guneetan eraso sexistei aurrea hartzeko eta haietan arta emateko

Protokoloaren premisak eta oinarriak

Emakumeen kontrako indarkeria desberdintasunean oinarrituriko oinarri sozial eta kultural baten adierazpena da, hau da, gizonak eta emakumeak ez dira berdinak gure gizartean. Benetako berdintasun-gabeziak esperientziak aldatzen ditu eta emakumeendako arriskuak sortzen ditu.

Ordena sozial eta kulturalak eragiten du emakumeek eta gizonek ezberdin bizitzea aisialdiaren esperientzia. Iruñeko gaueko aisialdiko eragileek (ikuskitzen publikoen antolatzaileak eta, horietaz gain, aisialdiko lokalen arduradunak) bere egiten dute sexismoari aurre egiteko lana alor guztietan, hori eragoztekoa eta emakume guztien askatasun indibidual eta kolektiboan oinarritutako festetako eta gaueko aisialdiko ereduak sortzen laguntzekoa.

Emakumeen aurkako indarkeria ez da «gertatzen den fenomeno bat». Festa-giroak ez du egiten eraso sexistak, eta horien barnean sexu-erasoak, «sahietsezinak» izatea. Ezin da onartu ezin ospakizun motatan pertsonen eskubide eta betebeharrak bertan behera geratzea.

Indarkeria-egoeren lekuko izatean esku-hartzearen lehentasuna izanen da, beti, kaltetutako emakumeak artatzea, babestea eta haien erabakiak errespetatzea.

Hiriko gaueko aisialdiko eragileen esku-hartze bateratu eta koordinatuak laguntzen du gizarte-erlaketan, ezberdintasunei buelta ematen eta berdintasunaren eta errespetuaren aldeko testuinguru sozial eta kulturala sortzen.

Helburuak

- Alndarkeria sexistaren aurrean erantzun integral bat ematea, herritarrek, instituzioek eta gizarte mugimenduak egina.
- Jarraibide komun eta partekatuak eskaintzea eraso sexisten aurrean jokatzeko moduari buruz, horren aurrean erantzun eraginkorra bermatuko dutenak eta emakumea edozein modutan berriz biktimizatzea ekidinen dutenak.
- Hiri gisa dugun jarrera irmoa berrestea, hala instituzioen nola gizarte mugimenduen eta gaueko aisialdiko eragileen aldetik, emakumeen kontrako indarkeriaren aurka borrokatzeko.
- Laguntza ematea emakume guztien askatasun indibidual eta kolektiboan oinarritutako festetako eta gaueko aisialdiko ereduak sortzen.

Jarduketa-eszenatokiak

Protokolo honi dagokionez, bi jarduketa-eszenatoki ezartzen ditugu, zeinetan biltzen baitira emakumeek pairatzen dituzten indarkeria-egoera mota asko. Ez dira mota guztiak, oso zaila baita islatzea emakumeen askatasuna murrizten duten egoera eta ekintza era askotakoak.

Aipatu den moduan, protokolo honen helburua da jarduketa-jarraibideak ezartzea, eragile guztiek partekatuak, emakumeen kontrako indarkeria-egoeren aurrean jokatzeko, egoera horiek izaeraz eta intentsitatez modu askotakoak izan daitezkeela ulertuta.

Horregatik, bi jarduketa-eszenatoki ezberdin proposatzen dira, kudeaketa errazteko egoeren arabera (eraso sexistak eta sexu-erasoak).

Batzuk zein besteak delitutzat jotzetik haratago, ulertzen dugu protokolo honen bidez hartzen dugun ardura dela horiek guztiak hartzea emakumeen askatasunaren kontrako eraso zein haien gaineko kontrol-mekanismo gisa. Interpretazio honek lagundu nahi du arbuio-estandar altuenak ezartzen, ezkutuan diren indarkeriak eta horien eragin kaltegarria ikusarazten, hori zuzentzeko eta hiri-erreferentzia berriak sortzeko elkarrekin egindako ahaleginari laguntzeko emakumeok eta gizonok hiria askatasunez bizi eta disfrutatzeko.

Konpromiso hau zabaltzeko eszenatokiak dira Iruñeko Udalak eta Iruñeko herritarrek eta erakundeek eraso sexistei erantzuteko elkarlanean egindako protokoloan (2015-2016an egina eta 2017an berrikusia) zedarritutakoak; izan ere, protokoloa prozedura honen elaborazioaren inspirazio-iturri izan da.

Beraz, izaera sexuala duten egoera guztiak hartzen dira sexu-erasotzat, haietan «saiakera» edo «burutua» kalifikazioak aipatu gabe, horiek, izatekotan, beste instantzia batzuek erabakiko baitute.

Eraso sexistak

Potokolo honen ondorioetarako, «Eraso sexista» gisa hartzen dira larderia-izaera duten eta emakume baten osotasun pertsonalaren eta askatasunaren kontra egiten diren jokamolde guztiak: irainak, mehatxuak, ukituak (hauek abusutzat hartzen dira eta, beraz, sexu askatasunaren kontrako delituen artean kalifikatuta daude), eta uzkurtzera, izutzera, behartzera, kontrolatzera eta abarretara zuzendutako ekintzak.

Sexu-erasoak

Protokolo honen ondorioetarako, eraso sexisten barnean jarduketamodu berezia egiten da Sexu-erasoen kasuan, eta horien baitan sartzen dira izaera sexual edo genitaleko atentatu fisikoak, horiek inbasio fisikoarekin zein hori gabe egin (sarketa).

Indarkerien aurrean arta emateko jarraibideak

1. ESZENATOKIA

ERASO SEXISTAK

1 Behatu eta ikusarazi

Erne egon balizko agresibitate- zein zaurgarritasun-egoerak identifikatzeko.

Lokalaren eta bertakoen jarrera identifikatu eta ikusarazi erabilgarri duzun material korporatiboaren bidez.⁽¹⁾

Gogoratu lantaldeko emakumeek eurek ere sexu-erasoak jasan ditzaketela.

2 Ekin

Eraso baten lekuko bazara, gerturatu, zure burua identifikatu eta galdetu emakumeari ea ongi dagoen eta laguntza behar duen:

BAIETZ erantzuten badu

joan harekin toki lasai batera eta bermatu ez dela bakarrik geratzen.

EZETZ erantzuten badu

esan zure jarduketa protokolo baten parte dela eta behar duenerako hor zaudela.

Baldintza onetan ez balego

eskaini toki lasai bat bere onera etortzeko eta ingurukoei abisua eman edo 112ra edo 092ra deitu

3 Lagundu

Laguntza-zerbitzura sartzeko eskuragarri dagoen informazioa eskaini, errespetutik eta presiorik gabe.

Alde egin baino lehen, ziurtatu ongi dagoela.

4 Baztertu

Segurtasuneko langileei eskatu erasotzailea edo erasotzaileak identifikatzeko, edo zuk zeuk egin lokalean halakorik ez bada.

Onarpen-politika erabili erasotzaileak lokaletik botatzeko.⁽¹⁾

5 Jarraipena balorazioa

Gertatutakoaren berri ematen duen fitxa bete erasoa dokumentatzeko.

1. Onarpen-politika jendeak ikusteko moduan eduki behar da, eta hura hedatzeko betebeharra dakar.

24 ORDUKO TELEFONOA SALAKETETARAKO

112 SOS NAFARROA (LARRIALDIAK). ARTA-PROTOKOLOA AKTIBATUKO DA, ETA HORREN BITARTEZ ESKUBIDEA DAGO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA, SANITARIOA, LEGEZKOA (LETRADUAREN LAGUNTZA SALAKETA JARTZEKO) ETA POLIZIALA ESKATZEKO.

092 UDALZAINGOA

1. Behatu eta ikusarazi zure jarrera

Askotan, indarkeria sexista ikusezina da inguruan. Arreta jarri behar duzu emakumeen kontrako indarkeria edo larderia erakusten duten egoeren aurrean: tematzea, gizon eta emakumeen presentzia oso desorekatua, emakumea inguratuta edukitzea, jarrera edo hitz umilgarriak, izaera sexista eta baldarreko keinuak egin zein esamoldeak, etab.

Halaber, adi egon emakumeen zaugarritasuna handitzen duten egoeren aurrean, esate baterako substantzien kontsumoa edo publiko gutxi edo askoko uneak daudenean, etab.

Gertatzen dena behatzea bezain garrantzitsua da zu zeu ere ikusgarri egitea, argi erakustea lokalaren eta bertako lantaldearen jarrera emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako konpromisoan. Erabili eskuragarri duzun materiala eta egiaztatu guztiontzat ikusgarri dagoela.

Ez ahaztu lokaletako lantaldeetako emakumeak ere eraso horien biktima izaten direla askotan. Prestakuntza funtsezkoa da zuzen erantzuteko; hala norberarena, autodefentsatik eta erasoen kontzientziatik abiatuta, nola lokaleko gainerako langileena, honako jarraibide hauekin bat jotzeko dutenak.

2. Esku hartu

Lokaleko edozein pertsonak esku har dezake emakume batendako arriskutsua izan daitekeen egoera baten aurrean, baina haren parte-hartzea haren ezagutzaren arabera izan da. Protokolo honi atxikitzeak dakarren prestakuntzak pertsonak gaitzeko balio du, eta, beraz, prestakuntza hori jaso dutenek erreferente gisa jardun beharko dute talde osoarendako.

» **Hurbildu zaitez emakumearengana, esaiozu zure izena eta lokaleko lantaldeko kidea zarela, eta galdetu ongi eta eroso dagoen ala ez.**

- Zuzendu zaitez harengana konfiantza eta segurtasuna emanaz; gogoan izan zure lehenengo ardura dela behartua izaten ari den emakumea artatzea. Ez epaitu egoera alde aurretik, baina ez onartu horren garrantzia txikitzea; batzuetan, jokamolde batzuei garrantzirik ez ematea egoerak ezarritako presioaren ondorioa da besterik gabe, edo gaur egun jokamolde jakin batzuei buruz oraindik dauden iritzien ondorioa.

» **Baietz erantzuten badu**, eskaini zure laguntza eta bitartekaritza, presionatu gabe baina tinko. Esaiozu laguntzen ahal diozula leku lasaiago batera, eta onartzen badu, eraman ezazu.

- Gertakariaren larritasunaren edo berezitasunen arabera, eman abisua lokalaren arduradunari. Horretarako zauden lekutik joan beharko bazenu, eskaini biktimari zurekin joateko aukera. Ez utzi bakarrik behartua izaten ari den emakumea. Beharrezkoa bada,

eskatu beste norbaiti aretoko arduradunari abisua emateko, eta, posible bada, zuk zeuk mantendu harekin kontaktua, zu izanen baitzara erreferentzia behartua izaten ari den emakumearentzat.

- Posible bada, saiatu zaitez emakume bat izan dadila eraso jasaten ari den emakumeari laguntzen diona. Ez dago jokamolde-modu jakin bat, baina pentsa daiteke horrela erosoago sentitu daitekeela.
 - Nahiago badu bertatik ez joatea, ziurtatu ez dela bakarrik geratuko, eta eskaini aretoko leku lasai bat bertan beharrezkoa den denbora pasa dezaten. Emakumea lagunekin badago, horiekin utzi baino lehen egiaztatu hori konfiantzazko taldea dela emakumearentzat. Askotan, erasotzaileak inguru hurbileneko kideak dira.
- » **Ez badu zure bitartekaritza onartzen,** bertatik joan baino lehen esaiozu bere esanetara zaudela, eta lokaleko langile guztiak ere badaudela. Gogorazi emakumeari jokatzeko modu hori erantzuteko protokoloan dagoela, hori lokalean identifikatuta dagoela eta adi egonen zarela laguntzarik behar badu, emateko.
- » **Ez badago zure esku-hartzeari erantzuteko moduan,** eskaini lasaitasunerako espazio bat edo eman suspertzeko denbora, eta bilatu laguntza emakumearen konfiantzazko ingurunean, eta ahalegina egin hari lagun egiten pertsona bakarra gera ez dadin. Emaiozu suspertzeko denbora edo, behar izanez gero, deitu 112ra edo 092ra.

- Jarri arreta eta eman horretan behar den denbora guztia. Zuk ezin baduzu, eskatu laguntza inguruneari.

3. Eskaini egoerarekin bat datorren laguntza eta informazioa

- » **Lokalak jarraibide errazak izanen ditu laguntza-zerbitzuetara iristeko** (SOS NAVFARROA 112, bai eta etorkizunean eskuragarri egon daitezkeen beste batzuk ere) . Eskaini horiek presioa egin gabe, betiere emakumearen borondatea eta haren gogo-aldartea eta une horretan erabaki bat hartzeko duen gaitasuna errespetatuta. Eskainiko dituzun informazioak eta lagun egiteak egoerarekin bat etorri beharko dute, eta lasaiak eta orekatuak izan.
- Ez egin presiorik, eskaini bakarrik emakumeak onar dezakeen hori. Ulertzeko arazoak baditu (estresaren edo kontsumo-egoeren ondorioz edo hizkuntzarekin zailtasunak dituelako), bilatu laguntza haren ingurunean
 - Gogoratu salaketa oso urrats garrantzitsua dela emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko, baina eskubide hori erabiltzea ala ez emakume bakoitzaren erabakia dela.
 - Ez egin presiorik gauzak azkar eginez, ezta ematen diozun informazio-kantitatearekin.
- » **Baieztatu informazioa baduela** (gertatutakoaren eta haren egoeraren arabera neurtuta) ematen ahal diozun laguntzari buruz, hala une horretan bertan nola berak egoki jotzen duenean.

- » Emakumearen erantzunaren arabera, **lagundu beharko diozu edo emakumea joan baino lehen ongi dagoela baieztatu.** Edozein motatako laguntza behar badu (medikuarena, garraibide segurua, etab.), baieztatu laguntza hori jaso duela.
 - Ezin bazara bertatik joan, eskatu laguntza inguruneari, edo konfiantzazko bezeroei.

4. Ukatu

- » Behin bermatuta emakumea erasotzailearengandik isolatuta dagoela, norbaiten laguntza duela esku-hartzeko langileak iritsi arte, eta lasai dagoela, **saiatu zaitetz erasotzailea edo erasotzaileak bisualki identifikatzen.**
 - Saia zaitetz, erasotzailea bisualki identifikatzeko beharrezkoa den informazioa jasotzen (Herritarren Segurtasuna babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren 16. artikulua). Eskatu laguntza informazio hori eman dezaketenei (lokaleko beste pertsona batzuk, ikusi ahal izan duten pertsonak, etab.)
- » **Lokalak segurtasun pribatua badu,** gertakaria identifikatzeko alderdiak kudeatzeko gai dela ulertuko da. Maiatzaren 2ko 33/2011 Foru Dekretuak langile horiek zer eginkizun dituzten ezartzen du, eta, beraz, identifikazioaren kudeaketa operatiboa pertsona horiei egozten ahal zaie.
- » **Segurtasun pribaturik ez badago** eta esku hartu behar baduzu, ohartarazi enbarazu egiten ari den pertsonari, eta sarrera ukatzeko duzun eskubidea baliatuta, eskatu bertatik alde egiteko.

- Lokalak protokolo honekin duen konpromisoa ere aipa dezakezu.
- Gogoratu ez dela beharrezkoa salaketa bat ezartzea bezeroei enbarazu egiten dietenei edo bezeroak behartzen dituztenei kargu hartzeko. Protokoloari atxikitako lokalen onarpen-politika zehatza izanen da zentzu horretan, hori babesa baita guztion ongizatearen arduradun gisa duzun aginpidea erabiltzeko.

- » **Ez badu onartzen lokaletik joatea,** jakinarazi ordena publikoko indarrei jakinaraziko diezula, jarduketa horrekin lerrokatuta egonen baita.
 - Ez egin aurre zuretzat arriskugarri izan daitezkeen egoerei. Ez da zure ardura erasotzailea edo erasotzaileak atxikitzea edo atxilotzea.

5. Egin segimendua

- » **Bete ezazu** protokoloak eskaintzen duen **txostena** gertatutako eraso sexistak dokumentatzeko.

2. ESZENATOKIA

SEXU-ERASOAK

-
- 1 Behatu eta ikusarazi** Begi-bistan gertatzea zaila bada ere, egon erne balizko sexu-erasoak identifikatzeko.
-
- Lokalaren eta bertakoen jarrera identifikatu eta ikusarazi erabilgarri duzun material korporatiboaren bidez. ⁽¹⁾
-
- Gogoratu lantaldeko emakumeek eurek ere sexu-erasoak jasan ditzaketela.
-
- 2 Ekin** Eraso baten lekuko bazara edo besteren batek eraso baten berri ematen badizu:
- Zure burua identifikatu lokaleko langile gisa.
 - Toki lasai bat eskaini.
 - Agintea hartu, beste batzuek esku-hartzea saihestu.
 - Erasotutako emakumearekin batera haren ingurune seguruko norbait egoten utzi.
 - Lokaleko arduradunari abisua eman, lehenbailehen 112ra edo 092ra dei dezan.
-
- 3 Lagundu** Lasaitasuna eta konfiantza eskaini, enpatiaz jokatu eta ulerkorra izan.
-
- Protokoloaren esparruan jasotako prestakuntza-gakoak erabili.
-
- 4 Baztertu** Lokalean segurtasuneko langilerik badago, utzi haien esku ustezko erasotzailea edo erasotzaileak identifikatzeko lana.
-
- Halakorik ez balego eskatu laguntza langile edota bezeroei, zeure burua eta beste inorena arriskuan jarri gabe.
-
- 5 Jarraipena balorazioa** Gertatutakoaren berri ematen duen fitxa bete eraso dokumentatzeko.

1. Onarpen-politikak berekin dakar politika honi buruzko informazioa ematen duten afixak egotea.

24 ORDUKO TELEFONOA SALAKETETARAKO

112 SOS NAFARROA (LARRIALDIK). ARTA-PROTOKOLOA AKTIBATUKO DA, ETA HORREN BITARTEZ ESKUBIDEA DAGO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA, SANITARIOA, LEGEZKOA (LETRADUAREN LAGUNTZA SALAKETA JARTZEKO) ETA POLIZIALA ESKATZEKO.

092 UDALZAINGOA

1. Behatu eta ikusarazi zure jarrera

Aisialdiko lokaletan sexu indarkeria askotan ez da ikusgarria ingurunearentzat, gehienetan ikusmenerako ezkutuan diren espazioetan gertatzen baita.

Edonola ere, zuzenean ikusten baduzu mota horretako eraso bat, edo halako baten berri ematen badizute zalantzarik gabe, lehentasuna da esku-hartzea hori gerarazteko eta biktimari laguntzeko. Zalantzaren aurrean, esku hartu.

Gertatu dela esaten badizute, azkar ekin biktimari laguntzeko, jarraian zehaztutako jarraibideekin bat.

2. Esku hartu

- » Lokaleko edozein pertsonak esku har dezake sexu-eraso baten aurrean, edo haren berri badu, betiere duen gaitasun-mailaren arabera.
- » Erasoa baten berri baduzu, are gehiago zuk zeuk ikusten baduzu, joan emakumea sorostera, esaiozu zure izena eta lokaleko lantaldeko kidea zarela, eta eskaini berehala leku pribatu bat. Hartu ardura egoeraren kudeaketan eta ekidin ezazu beste batzuek esku har dezaten.
 - Lasaitasunez jokatu eta saia zaitez egoera horrek estres gehiagorik ez eragiten beste pertsona batzuen esku-hartzearen ondorioz. Eman lasaitasuna eta pribatutasuna.
 - Emakumea ingurune seguru batek lagunduta badago (lagunak), eskatu horietakoren bati zuekin egoteko, ahal dela, pertsona bat baino gehiago, baina betiere erasoak jasan duenaren nahien arabera.

» Jakinaren gainean jarri lokalaren ardura duen pertsonari, eta une horretan ez badago eskura, eskatu beste norbaiti jakinarazteko. Esaiozu zer gertatu den eta eskatu 112ra edo 092ra deitzeko berehala.

3. Eskaini egoerarekin bat datorren laguntza eta informazioa

- » Sexu-erasoaren kasuan egiten den esku-hartzeak erasoak jaso duen emakumearen ongizatea bakarrik bermatu behar du zerbitzu espezializatuak iritsi eta ardura hartzen duten bitarte. Zure lana izanen da, funtsean, lasaitasuna eta konfiantza ematea.
- » Saia zaitez denbora hori ahalik eta laburrena izan dadin, eta egiaztatu beharrezko abisu guztiak egin direla.
- » Jar zaitez emakumearen beharren esanetara.
 - Ez egin presiorik, eskaini bakarrik emakumeak onar dezakeen hori.
 - Ulertzeko arazoak baditu (estresaren edo kontsumo-egoeren ondorioz edo hizkuntzarekin zailtasunak dituelako), bilatu laguntza.
- » Protokolo hau betez, oinarrizko prestakuntza bat jasoko zenuen larrialdietako arretarako oinarrizko teknikak aplikatu ahal izateko langile espezializatuak iritsi bitarteko denboran.
- » Enpatiaz eta ulerker jokatu, ez saiatu zerbitzu espezializatuen lana ordezkatzeko. Garrantzitsua da erasoari buruzko kontaketa bertaratu diren

profesionalei bakarrik kontatzea.
Garrantzitsua da, halaber, eraso larrien kasuan, eszenatokia bere horretan mantentzea.

4. Identifikatu eta salatu

- » Saiatu zaituz lehenengo esku-hartze honek irauten duen denboran ustezko erasotzailea edo erasotzaileak bisualki identifikatzen.
- » Zure lehentasuna erasoak jasan duen emakumeari arta ematea izan arren, saia zaituz identifikazioa egin dadin. Ezin baduzu hori zuzenean egin, eskatu laguntza bezeroei edo erasoak ikusi ahal izan duen edozeini.
- » Lokalak segurtasun pribatua badu, utzi horien esku kudeaketa hau, legeak ezartzen duenarekin bat.
 - Era berean, lokalak edo espazioak segurtasun-kamerak baditu, eman irudiak horiek kudeatzeko gaitasuna duten agenteei (polizia, segurtasun-agentek, etab.), ikerketarako egokiak badira.
 - Ez jarri zure burua arriskuan, edo ez jarri lokaleko beste edozein pertsona arriskuan. Ez behartu erasotzaileak atxikita edukitzea egoera bortitza izan badaiteke.

5. Egin segimendua

Azkenik, bete ezazu protokoloak eskaintzen duen txostena gertatutako sexu-erasoak dokumentatzeko.

3. Protokoloari atxikitzea

Protokolo honi atxikitzea, eragile laguntzaile gisa, boluntarioa da gaueko aisialdiko lokalentzat eta gisa horretako jarduerak antolatzen dituzten entitateentzat.

Protokoloan sartzen ahalko dira ofizialki atxikimendua sinatzen duten Iruñeko aisialdiko lokal horiek, agiri hau sinatuta eta horrek ekartzen dituen konpromisoak hartuta.

Iruñeko Udala da arduraduna, Berdintasuneko Alorraren bitartez, bermatzeko sinatzaileak protokoloa aplikatzeko moduan daudela eta zehaztutako betekizunak betetzen dituztela.

Aplikazio-esparrua

Protokolo honen jarduketa-esparrua Iruñean egiten diren jai- eta aisialdi-guneetara mugatzen da.

Egin beharreko jarduketak protokoloaren testuinguruan

Prestakuntza

Protokoloari atxikitzean, hala lokaletako jabeek nola bertako langileek konpromisoa hartzen dute beren lokaletan emakumeen kontra izan daitezkeen erasoetan arta emateko, modu protokolarizatuan.

Erantzun protokolarizatu hori eskaini ahal izateko, protokoloari atxikitako lokalek konpromisoa hartzen dute bertako langileei prestakuntza emateko emakumeen kontrako indarkeria egoerei aurre hartzeko, horiek detektatzeko eta horien aurrean jarduteko, eta prestakuntza hori eta protokoloaren jarraibideak txertatzeko hala barne-prestakuntzako prozesuetan nola langile berriak hartzean.

Prestakuntza hori Iruñeko Udalak sustatu eta finantzatuko du, eta hirian diren ostalarien elkarte ezberdinen bitartez emanen da. Aldian-aldian eskainiko da, langile berrien kasuan prestakuntza etengabe bermatzeko helburuz. Prestakuntza jasotzen dutenei egiaztagiri bat emanen zaie eta Udalarena den datu-base batean sartuko dira, eta horrela ez dute prestakuntza errepikatu beharko lantokiz aldatuz gero.

Udalak ziurtagiri bat egingen du, eta pertsona bakoitzak merezimendu gisa gehitu ahal izanen du bere curriculumean.

Iruñeko Udalak harrerarako eskuliburu bat eskainiko du, non oinarrizko informazioa jasoko baita bere instalazioetan eraso sexistarik izanez gero (1. eta 2. eszenatokiak) nola jokatu behar den azalduz, eta lokalek haien langileen harrera-prozesuetan txertatuko dute informazio hori.

Lokal egonkorrik ez duten aisialdiko agenteen kasuan (karpak edo antzeko aisialdiko ekitaldiak), antolakundea arduratuko da taldeetako pertsonendako prestakuntza eskatzeaz, eta lehentasuna emanen dio Protokolo honen esparruan prestakuntza egiaztatzen duten pertsonak kontratatzeari.

Prebentzio-jarduketak

Protokoloari atxikitako lokalek konpromisoa hartzen dute errespetua sustatuko duen aisialdi-eredu bat garatzeko, halakoa non oinarrizko baldintzak bermatuko baititu festaren esperientzia gizon eta emakumeen arteko berdintasun-baldintzetan gerta dadin.

- Protokolo honi atxikitako lokal guztiek egiaztatuko dute lokalek edo bertako inguruek izan ditzaketan puntu beltzak berrikusi ditzutela, horiek egokitzeke (esate baterako, ispiluak, argiak edo kamerak jarrita) eta segurtasun-gabeziaren sentsazioa ekiditeko.
- Sistematikoki errebisatuko dute aisialdi-eskaintza, hala programazioan nola hedapenean, emakumeak iraintzen,

gauza bihurtzen edo estereotipatzen dituzten ekintzak egitea ekiditeko, edo emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak azpimarratzen dituzten mezuak ekiditeko (esate baterako, sartzeko prezio ezberdinak izatea emakume eta gizonentzat edo edaria ematea saritan; arau ezberdinak janzkera-kodeetan; arbitrariotasuna sartzean, horretarako oinarri hartuta emakumeen irudi pertsonala; lokala edo bertako jarduerak sustatzeko kartelen diseinuetan emakumeak sexu desirako objektu gisa agertzea, mendekotasunezko jarrera laidogarriak, edo indarkeria bultzatzea, etab.).

- Konpromiso honi ikusgarritasuna emanen diete, protokoloaren irudia/ marka erabilia, eta afixen edo seinaleen bidez, zehazteko lokalek eraso sexisten aurrean duen jarrera eta horien aurrean erantzuteko protokolo bat badela. Halaber, protokolo honi atxikitzeak berekin dakar elkarrekin adosten diren sentsibilizazio-ekintzetan parte hartzea.
- Sarean parte hartuko dute, beste eragile batzuekin batera, emakumeen kontrako indarkeriaren aurreko sentsibilizazioan eta prestakuntzan zein horren kontrako arbuioan. (Udala, ostalaritza-elkarteak, mugimendu feminista...).
- Protokoloak proposatutako «Onarpen-politika» bere egingen dute.

Erasoei arreta emateko jarduketak

Protokoloari atxikitako lokalek konpromisoa hartzen dute indarkerien aurrean arreta emateko adostu diren jarraibideak martxan

jartzeko. Indarkeria horiek 1. eszenatokiaren (eraso sexistak) eta 2. eszenatokiaren (sexu-erasoak) barruan daude eta horiei buruzko informazioa agiri honetan dago jasota.

Halaber, hirian eraso sexista bat gertatzen denean sustatzen diren gaitzespen ekintzetan parte hartuko dute, bereziki eraso horiek protokoloari atxikitako lokaletan izan badira, modu horretan haien elkartasuna adieraziz biktimekin zein erasoak gertatu diren lokalekin.

Jarraipena eta balorazioa

Protokoloari atxikitako lokalek konpromisoa hartzen dute egiten dituzten esku-hartzeei buruzko kontrola eta jarraipena egiteko, horien aplikazioa dokumentatzeko helburuarekin, eta ezagutza hori eskaintzeko parte hartzen duen lokal multzoari zein gainontzeko eragileei, hobekuntzak, ekintza berriak eta abar identifikatze aldera.

Agiria egiteko behar den informazioa neurrikoa izanen da, zertarako bildu eta horren arabera, eta beti errespetuzkoa emakumeekin. Ez dira inolaz ere eskatuko emakumea lotsarazi dezaketen datuak, ezta haren intimitatea estutasunean jar ditzaketenak ere. Informazio hori jasotzeko jarraibideak agiri erraz batean jasota egongo dira, zeina atxikitako lokalei emango baitzaie, eta lokalek haren edukiari buruzko aurretiko prestakuntza jasoko dute.

Antolamenduzko egitura

Protokolo honen eraginkortasuna bermatze aldera, Jarraipen Batzorde bat ezarriko da, honako eginkizun hauekin:

- Protokoloa eta elkarrekin aritzeko prozedura ezagutzea.
- Protokoloan jasotako neurriak abian jartzea eta aldizkako jarraipena egitea.
- Koordinazioan eman daitezkeen bat ez etortzeak atzematea eta berriz ere norabidea hartzeko beharrezkoak diren neurriak txertatzea edo proposatzea.
- Iruñean festetako eta gaueko aisialdiko guneetan emakumeen aurka gertatzen den indarkeriaren intzidentzia ezagutzea, aztertzea eta komunikatzea.
- Aisialdiko eta jaietako testuinguruetan indarkeriaren aurrean sentsibilizatzeko eta horri aurre hartzeko estrategiak bultzatzea, horiek garatzen laguntzea eta protokolo honen eragina ebaluatzea.
- Hala badagokio, atxikitako lokaletako pertsonak protokolo honetan zehaztutako prestakuntza egin dutela egiaztatzea, eta hori jasota uztea, CVetan sar dadin.
- Prestakuntza hori egin duten pertsonen datu-basean jasotako informazioa zaintzea.
- Protokoloaren berri emateko, hedatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak egitea.
- Protokolo honetako konpromisoak betetzen direla ziurtatzeko beharrezkoak diren zaintza-sistemak definitu eta abian jartzea.
- Iruñeko Udalari, protokoloa sinatu duten lokalei eta, dagokionaren

arabera, beste eragile batzuei – emakumeen elkarteak eta talde feministak zein herritarrak barne– protokoloaren esparruaren barruan egindako lanari buruzko informazio esanguratsua helaraztea (datuak, kanpainak, ikerketak, etab.).

- Ezartzen eta onesten diren eginkizun guztiak.

Funtzionamendua

Batzordea honako hauek osatuko dute:

- Zuzenean engaiatuta dauden Udaleko alorretako zuzendaritzak (Berdintasuna, Herritarren Segurtasuna eta Gizarte Ekintza), Komunikazio Zerbitzuarekin koordinatuta.
- Iruñeko ehun sozial eta feministako ordezkari bat.
- Iruñeko ostalarien elkarteetako ordezkari bat.
- Elkarre horietako kide ez diren taberna/lokaletako ordezkari bat.
- Peñen Federazioko ordezkari bat.
- Berdintasuneko teknikari bat.

Berdintasuneko teknikaria arduratuko da dinamizazioaz zein idazkaritzaz, eta honako zeregin hauek beteko ditu:

- Bilerak deitzea.
- Aktak egitea.
- Informazioa hedatzea.
- Komunikabideekin koordinatzea protokoloa hedatzeko eta kanpainarekin bat egiteko.
- Prestakuntzen egutegia egitea.
- Izan daitezkeen erasoei buruzko informazioa biltzea eta erantzuna ematea.

- Urteko jardueraren txosten-memoria bat egitea.

Jarraipen Batzordea ohiko izaeraz bilduko da lau hilabeteetan behin, eta ohiz kanpoko eran behar aldiz. Erabakiak kideen gehiengo soilarekin hartuko dira.

Urtean bitan koordinazio politiko-teknikoko saio bat egingen da: bata sanferminak amaitutakoan eta bestea urte amaieran. Saio horretan, une horretara arte gauzatutako ekintzen ebaluazioa egingen da, eta ondoren egin beharreko jarduketei zein egin daitezkeen hobekuntzei helduko zaie.

Protokoloa sinatzen duten eragileek baja egin ahalko dute protokolutik, honako arrazoi hauengatik:

- Beren borondatez, uko egitea formalki eskatuta idatzi baten bidez.
- Kargua utzaraztea, hala adostu dutelako protokoloa sinatu duten gainontzeko eragileek aho batez, betebeharren eta hartutako konpromisoen ez-betetze larri eta errepikatuengatik.

Xedapen gehigarriak

Protokolo honen sinatzaileek aho batez adosten ahalko dute atxikimendu-agiri hau aldatzea, egoki jotzen badute.

- Funtzionamenduan jartzen denetik aurrera, protokoloa sinatu duten eragileek funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren barne-funtzionamenduko prozedurak abiatuko dituzte.

IZENA	NAN/AIZ
1. ABIZENA	2. ABIZENA
HONAKO HONEN IZENEAN	

Aurreko datuen jabeak **BAT EGITEN DU «Festetako eta gaueko aisialdi pribatuko guneetan eraso sexistei aurrea hartzeko eta arreta emateko»** Protokoloarekin agiri honen bidez.

Protokolo hau sinatzen dugun lokalok:

- Geure egiten dugu Iruñeko herritarren konpromisoa emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko hiri baten alde, guztiontzako askatasun eremuak eraikitzearen alde, bizitzaren esparru guztietan.
- Hortaz, geure egiten dugu, baita ere, Iruñeko herritarrek eta erakundeek sanferminetan eraso sexistei erantzuteko protokoloa, zeinaren gainean artikulatzen baita konpromiso hau, Iruñeko Udalak gidatua eta hiriko mugimendu feministarekin koordinatua. Protokolo honek urte luzez egindako lan hori inspirazio iturri du eta aintzatesten du.
- Emakumeen aurkako indarkeria eraikuntza sozial baten emaitza da, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunen emaitza. Hortaz, desagerrarazteko errespetuzko eta askatasunezko eremuak sortu behar dira, non erasotzaileek jakingo baitute tokiz kanpo daudela, eta emakumeak libre izanen dira haien eskubide guztiak erabiltzeko, baita aisialdiaz gozatzeko duten eskubidea ere.
- Indarkeriaren arrazoi bakarra indarkeria erabiltzea erabakitzen dutenen erabakia da, bizi dugun desperekotasunaren kultura honen fruitu. Aisialdiko guneetan, tabernetan, dantzalekuetan zein festa giroan ordena soziala erreproduzitu egiten da. Horregatik aisialdiko egoerek ezin dute inor indarkeria hori justifikatzera eraman, ezta erasotzaileei inpunitate sentsazio bat eman ere.

Protokoloa sinatzen dugun lokalok, hortaz, errespetuzko aisialdi arduratsua sortzeko beharrezko baldintza sortzeko konpromisoa hartzen dugu, eta eskubideak zein askatasunak bermatzeko eraz jokatuko dugu.

Gure konpromisoa honako jarduketa-ildo nagusi hauetan gauzatuko da:

- Genero eta berdintasuneko prestakuntza-jarduerak sustatzea gure langileen artean, zeinek espresuki eragile aktiboak izateko konpromisoa hartzen baitute, emakumeendako mehatxatzaileak, beldurgarriak edo iraingarriak diren jokaerak antzeman eta gaitzesteko.
- Gure lokalak berraztertu eta egokitzea puntu beltzik edo arrisku gunerik izan ez dezaten, bai eta gure ekintzak eta komunikazioak ere, aisialdi-eskaintzak honako printzipio hauei erantzuten diela ziurtatzeko: askatasunen errespetua, bazterkeria eza, sexismoa ez sustatzea eta emakumeen askatasuna babestea.
- Modelo komun bat ezartzea gure lokaletan gertatzen den edozein eraso sexista edo sexu-erasori erantzuteko, izan emakume bezeroen kontra zein gure lantaldeetako emakumeen kontra. Gure lehentasuna eraso bat jasan duten emakumeei arta ematea dela adostu dugu, eta, horretarako arta-mekanismoak zehazten ditugu, baita erasotzaileak zein jokaera bortitzak sustatu eta babesten dituztenak ikusarazi eta gaitzesteko erantzun-jarraibideak ere.
- Herritarrek, oro har, eta gure bezeroak bereziki sentsibilizatzea, portaera positiboak azpimarratuz, denondako errespetuzko aisialdiko erreferentziak sortzen lagunduz, eta egungo aisialdi ereduari eta horren eraldaketari buruzko hausnarketan aktiboki parte hartuz.
- Protokolo honi atxikitzeak ez du esan nahi enpresek Gizonen eta emakumeen berdintasun eragingarriako 3/2007 Lege Organikoak (48.1 eta 48.2 artikulua) agintzen duen sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloa izan behar ez dutenik.

Protokolo hau sinatzea guri dagokigu eta hiriko eragile aktibo gisa konprometitzen gaitu, emakumeek jakin dezaten libre direla, eta erasotzaileek, bazter direla.

Gonbit egin nahi diegu Iruñeko gainontzeko lokalei eta aisialdiko eragileei konpromiso honekin bat egin dezaten, prestakuntza jardueretan parte har dezaten, erantzuteko jarraibideak bere egin ditzaten, eta horiek sozializatzen eta ezagutzera ematen lagun dezaten.

Sinadura

Iruñean, 20__ko _____aren ____an

4. Eranskina



SIN

AGRESIONES SEXISTAS
ERASO SEXISTARIK

GABE

ATXIKITUTAKO OSTATUA / ESTABLECIMIENTO ADHERIDO

 **112 | 092**

 Ayuntamiento de Pamplona | **Iruñeko Udala**

KANPOKO ERANSKAILUA
140 x 210 mm



SIN
AGRESIONES SEXISTAS
ERASO SEXISTARIK
GABE

Frente a cualquier agresión
dirígete al personal de la barra
Edozein erasorik gertatuz gero
barrako langileei esan

KOMUNETARAKO ERANSKAILUA
Binilo gardenean inprimatua
100 × 180 mm






SIN
AGRESIONES SEXISTAS
ERASO SEXISTARIK
GABE

Frente a cualquier agresión
dirígete al personal de la barra
Edozein erasorik gertatuz gero
barrako langileei esan

ATEETARAKO ERANSKAILUA
72 x 130 mm





SIN
AGRESIONES SEXISTAS
ERASO SEXISTARIK
GABE

ESTE LOCAL DISPONE DE UN PROTOCOLO
DE ACTUACIÓN ANTE LA VIOLENCIA SEXISTA

**Frente a cualquier agresión
dirígete al personal de la barra**

LOKAL HONEK INDARKERIA SEXISTAREN
KONTRAKO JARDUKETA-PROTOKOLOA DAUKA

**Edozein erasorik gertatuz gero
barrako langileei esan**

📞 112 | 092

 Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

KARTELA
220 x 440 mm



MANUAL DE ACOGIDA PARA EL PERSONAL DEL LOCAL

Protocolo de prevención y actuación ante la violencia sexista en espacios festivos y de ocio nocturno privado

El objetivo de este protocolo es establecer pautas de actuación compartidas por todos los agentes ante las situaciones de violencia contra las mujeres, entendiendo que éstas pueden ser de diferente naturaleza e intensidad.

La violencia contra las mujeres es la expresión de un sustrato social y cultural que se basa en la desigualdad. El ocio no crea, sino que reproduce este orden social desigual. Así, las violencias sexistas y la amenaza de sufrirlas limitan la libertad de las mujeres en los espacios públicos y de ocio nocturno impidiendo su disfrute en clave de igualdad.

Es responsabilidad de todos los agentes sociales visibilizar esta realidad y actuar para transformarla. Por ello, la participación de las personas responsables y trabajadoras de los locales de ocio nocturno es clave para contribuir a generar una

conciencia clara sobre las carencias de libertades en las que viven las mujeres, y para facilitar la creación de una cultura del buen-trato, del respeto y de la repulsa social ante las agresiones.

Por ello, se proponen dos escenarios de actuación diferenciados, para facilitar la gestión de las situaciones, agresiones sexistas y sexuales.

Más allá de la consideración de delito de unas u otras, entendemos que la responsabilidad que asumimos a través de este protocolo consiste en considerar, todas ellas, como ataques a la libertad de las mujeres y mecanismo de control sobre ellas.

En caso de agresión, la indicación es dirigirse al personal de la barra, quienes habrán recibido formación para saber cómo actuar.

ESCENARIO 1

AGRESIONES SEXISTAS

A efectos de este Protocolo, se consideran "Agresiones Sexistas" todos los comportamientos de carácter intimidante que atentan contra la integridad personal y la libertad de una mujer: insultos, amenazas, tocamientos (estos están calificados como abuso y por tanto están calificados dentro de los delitos contra la libertad sexual), acciones dirigidas a intimidar, asustar o coaccionar, controlar, etc.

1 Observa y hazte ver

Mantente en alerta para identificar situaciones de posible agresividad y/o vulnerabilidad.

Identifica y haz visible el posicionamiento del local y sus personas⁽¹⁾ a través del material corporativo disponible.

Recuerda que las propias mujeres del *staff* también pueden ser objeto de agresiones sexistas.

2 Actúa

Si eres testigo/a de una agresión, acércate, identifícalo, y pregunta a la mujer si está bien y si necesita ayuda.

Si responde positivamente > acompaña a un lugar tranquilo y asegúrate de que no se queda sola.

Si responde negativamente > explícale que la actuación es parte de un protocolo y que queda a su disposición.

Si no estuviera en condiciones > ofrécele un lugar tranquilo para su recuperación y avisa a su entorno o al 112 o al 092.

3 Acompaña

Ofrece información disponible para acceder a los servicios de apoyo (SOS NAVARRA 112), desde el respeto y sin ejercer presión. Asegúrate de que está bien antes de que se marche.

4 Rechaza

Pide a Seguridad que identifique al agresor o agresores o trata de hacerlo tú si el local no cuenta con este apoyo.

Haz uso de la política de admisión para pedirle que abandone el local.⁽¹⁾

5 Seguimiento y valoración

Completa la ficha de reporte para documentar la agresión.

ESCENARIO 2

AGRESIONES SEXUALES

A efectos de este Protocolo, dentro de las agresiones sexistas se particulariza la actuación en el caso de las Agresiones Sexuales, que incluyen atentados físicos de naturaleza sexual-genital, independientemente de que estos hechos incluyan o no invasión física (penetración).

1 Observa y hazte ver

Aunque es poco probable que suceda a la vista, mantente en alerta para identificar posibles agresiones sexuales.

Identifica y haz visible el posicionamiento del local y sus personas⁽¹⁾ a través del material corporativo disponible.

Recuerda que las propias mujeres del *staff* también pueden ser objeto de agresiones sexistas.

2 Actúa

Si eres testigo/a de una agresión u otra persona te refiere una agresión:

- Identifícalo como personal del local
- Ofrece un lugar tranquilo.
- Toma las riendas, evitando la intervención de otras personas.
- Permite que la mujer agredida sea acompañada por alguna persona de su entorno seguro.
- Avisa a la persona responsable del local para que llame con urgencia al 112 o al 092

3 Acompaña

Ofrece calma y confianza y actúa con empatía y comprensión. Aplica las claves formativas recibidas en el marco del protocolo.

4 Rechaza

Si el local cuenta con Seguridad, deja en sus manos la tarea de identificación del presunto agresor o agresores.

En caso negativo, solicita colaboración a personal y/o clientela, sin poner tu integridad o la de otras personas en peligro.

5 Seguimiento y valoración

Completa la ficha de reporte para documentar la agresión.

TELÉFONOS DE DENUNCIAS. 24 H

112
SOS NAVARRA
(URGENCIAS)

SE ACTIVARÁ EL PROTOCOLO DE ATENCIÓN, A TRAVÉS DEL CUAL TIENE DERECHO A SOLICITAR ATENCIÓN PSICOLÓGICA, SANITARIA, LEGAL (ASISTENCIA LETRADA EN LA INTERPOSICIÓN DE LA DENUNCIA) Y POLICIAL

092
POLICÍA
MUNICIPAL

1. La política de admisión implica la presencia de cartelera informando de esta política.



«Festaguneetan eta gaueko aisialdi pribatuko guneetan indarkeria sexistari aurrea hartzeko eta jarduteko» protokoloak sexu-harreman askeak eta baimenduak defendatzen ditu.

Inork zeure sexu-askatasuna eragozten badu, salatzen ahal duzu. Informa zaitez!

Honako zortzi puntu hauek ezagutu behar dituzu

- 1 Salatu ala ez salatu**, baduzu eskubidea laguntza eta arta psikologikoa, sanitarioa eta legala jasotzeko, jasan duzun erasoa zuk erabaki moduan bideratzeko.
- 2 Garrantzitsua da osasun-etxe batera lehenbailehen joatea**, erasoan eragindako kalteari aurre egiteko laguntza jaso eta frogak erregistratze aldera. Sexu-erasoaren ondorengo lehen orduak funtsezkoak dira ikerketaren emaitzak ongi bideratzea bermatzen duten zantzurik lortzekotan. Hori dela-eta, hobe duzu ez garbitzea, dutxarik ez hartzea eta ez aldatzea arropaz, eta erasoa ahotik jasoz gero, ez hartu ez jakirik ez edaririk osasun-etxera joan baino lehen. Susmorik baduzu erasotzaileak eman dizula drogarik edo ezer toxikorik, behar diren frogak eginen dizkizute.
- 3 Nafarroako Ospitalegunea** da Iruñeko larrialdietako erreferentziatzko osasun zerbitzua.
- 4 Ospitalean egonda erabakitzen baduzu erasoa salatzea**, ospitale berak hartuko du ardura lesio-partea dagokion guardiako epaitegira igortzeko eta hala poliziarri nola mediku forentseari abisua emateko. Halaber, aukera duzu polizia-etxe edo guardiako epaitegi hurbilenean salaketa zuzenean aurkezteko. Azken kasu horretan, txosten medikua aurkeztu beharko duzu.
- 5 Ospitalean egonda ez baduzu erasoa salatu nahi**, ospitalea beharturik dago agintari judizialei edozein sexu-erasoren berri emateko, zure baimenarekin edo baimenik gabe, baina horrek ez du prozedura judizialik zertan abiarazi.
- 6 Bakarrik salaketa aurkeztuta abiatuko da erasotzailearen kontrako zigorro-prozedura**, haren inpunitatearen kontra egite aldera.
- 7 Polizia-egoitzan edo egoitza judizialean salaketa egiterakoan**, eskubidea duzu abokatuen laguntza jasotzeko. Laguntza hori eskatzeko aholkatzen dizugu, abokatu batek zaindu dezan prozesuaren funtzionamendu egokia. Badira, baita ere eskuragarri, sexu-erasoen aferetan eskarmentu handia duten beste zenbait entitate juridiko eta zerbitzu espezializatu, hala nola Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzua (EUAZ), Emakumeendako Laguntza Juridikoko Zerbitzua (ELJZ) eta Delituen Biktimei Laguntzeko Bulegoa.
- 8 Zure administrazio-egoera irregularra izanda ere**, eskubidea duzu doan jasotzeko larrialdietako osasun-zerbitzua, lege-aholkularitza eta interprete baten laguntza, eta, nahi izanez gero, salaketa jartzeko ere.

24 ORDUKO TELEFONOA SALAKETETARAKO

112 SOS NAFARROA (LARRIALDIAK)

ARTA-PROTOKOLOA AKTIBATUKO DA, ETA HORREN BITARTEZ ESKUBIDEA DAGO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA, SANITARIOA, LEGEZKOA (LETRADUAREN LAGUNTZA SALAKETA JARTZEKO) ETA POLIZIALA ESKATZEKO.

092 UDALTZAINGOA